



IKUSMIRA

BADAKITE, BAINA EZ DUTE ULERTZEN

Goian, Baiona: zerbitzu publikoen aldeko manifestazioa. Behean, Bilbo: pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Aste honetako lagin bi besterik ez dira, eta badira azken egunotan beste protesta asko eragin dituzten motibo gehiago ere: diru sarrerek bermatzeko errenta, hezkuntzaren kalitatea, osasungintza... Mobilizazio jendetsuak ikusten ari gara, eta instituzioetako arduradunek aurpegi ulerkorra erakusten dute, baina pentsatzen dute jendeak ez duela ulertzen: «Hauek us-

te dute daukagun dirua denetarako iristen dela, eta ez dakite zein zaila den dirua banatzea...». Eurek badakite, baina eurak dira ulertzen ez dutenak. Adituak dira, hori ez dut nik ukatuko, baina ez dute ondo egiten. «Dirua eskatu besterik ez dute egiten». Noren dirua, baina? Estatuetakoa? Gobernuetakoa? Kideena? Lehendakariena? Ahalduen nagusia? Alkateena? Ez, ez dute eskatzen, eman baizik. Eta modu solidarioan eman duten edo ematen ari diren diru hori, beren dirua, modu solidarioan banatzeko eskatzen dute. Xabier Izaga Gonzalez



Isabelle MIQUELESTORENA - Aritz LOIOLA | FOKU